

Ander Sierra Zarraga

INTRODUCCION A LA TEKNOLOGIA EDUCATIVA

MANUEL AREA MOREIRA

ONDORIOAK:

Liburu hau irakurtzeak hainbat gauza eskaini dit hausnartzeko. Hasteko konturatu naiz hezkuntza hainbat esparrutan zaharkituta dagoela. Duela hamarkada batzuk alfabetazioari buruz hitz egiten zenean irakurmenari buruz eta idazkerari buruz hitz egiten zen, liburuak eta letra imprimatua zelako informazioa transmititzeko era, baina, gaur egun egoera horia aldatu da. Gaur egun informazioa hainbat bideetatik zabaltzen da: musikatik, irudietatik, irudien eta hitzen konbinazioetatik,..., eta gainera duela hamarkada batzuk baina kantitate askoz handiagoan. Horregatik beste alfabetatze modu batzen hitz egin behar dugu.

Teknologia hain presente dago gure gizartean non ezin dugun haren gabeko bizitza imaginatu. Horregatik hezkuntzaren eskuhartzea gizarte honetako biztanleak hezte da. Horretarako ikasleak teknologiaen erabileran hezi behar ditugu, baina baita hauekiko begirune kritikoan ere. Informazio eta komunikazioaren teknologiak hainbat abaintaila ekarri dituzte gure gizartera, baina badaukate ere bere alde ilunak. Adibidez, teknologia berriek globalizazioa bultzatzen dute kultura minoritarioak baztertuz. Beste alde batetik gaur egun informazio pila bat ailegatzen zaigu hainbat bideetatik. Hain handia da datu kantitate hau non efektu berezi bate maten den, desinformazioa datu eta informazio saturazioagatik, hau da, informatuta gaude, baina ez dugu informazio hau ezagueran bihurtzen. Gizarte honi aurre egiteko biztanleak hezi behar ditugu, kritikoak izango diren biztanleak hain zuzen ere, ailegatzen zaigun informazioa beti igorle batek eginda dagoelako, eta hau bere interesen alde lan egiten duelako.

Baina honekin ez du tesian nahi teknofobia bat garatu behar dugula, teknologia berriak hainbat abaintaila dauzkatelako, batez ere hezkuntza arloan. Interneten bidez irakasleak bere esperientzia konpartitu ahal dute beste irakasleekin, hauen formakuntza modu aktibo batean handitzeko. Gainera internet beste motatako ikasketak sortu ditu, muga espacial eta tenporaletatik kanpo. Klasean ere bai teknologia berriekin akintza aktiboak egin ahal dira ikasleen atentzioa eta motibazioa bultzatzeko eta liburuak bai ikasleari bai irakasleari inposatzen dioten zorrotasunari aurre egiteko.